

**Fernando Pessoa**

**Marinela**

**euskaratzailea: Joseba Sarrionandia**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Joseba Sarrionandia.

Euskarazko edizioa: Susa, 1985

Jatorrizkoaren data: 1913

Fernando Pessoa euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=266>

# PROLOGOA

Fernando Antonio Nogueira Pessoa —hau baitzen bere izen ofiziala— 1888 urteko ekainaren hamahiruan sortu zen, arratsaldeko hiruretan, Lisboan. Eta Lisboan bertan hilgo zen, 1935 urteko hazilaren hogeita hamarrean, alkoholismo kronikoa eta zirrosia medio.

Berak esaten zuenez, bizitza bi izaten ditugu: bata, egiazko bizitza, haurtzaroan amets egin eta harrezkero ere irudimenaren behelaino mehe artean segitzen duguna eta bestea, bizitza faltsua, besteekin eta iharduera praktikoan konplitu eta hil kaxan amaitzen dena.

Goi mailakoa eta kultoa zen Fernando Pessoren familia, hidalgo leinukoa aitaren aldetik, judukonbertsoen leinukoa amarenetik. Sei urte zituelarik hil zen bere aita, tuberkulosiarekin, eta geroxeago urte beteko bere anaia tipia. Baina bi urte geroago ama alarguna berriro ezkondu zen militar batekin eta, 1896 urtean, Hego Afrikan bizitzera joan ziren hirurak, Durban hirira. Han, Fernando Pessoa eskola ingelesetan hezi zen,

eta gazterik hasi zen literatura estudiantzen eta izkiriartzen, ingelesez beti.

Hamazazpi urterekin, 1905ean, Lisboaara itzuli zen; eta ez zen gehiago hiriburutik irtengo bere bizitza guzian.

Itzuli ondorengo urteak aldaketa urteak izan ziren, bizimoldez eta hizkuntza literarioz egokitu behar bait zen. Ingelesa utzi gabe, portugesez saiatzen zen idazten. Lana bulegoetan aurkitu zuen, itzulpen eta gutun komertzialak, herbesterako batez ere, erredaktatzea zuen ogibidetzat.

1912 urtean argitaratu zituen Fernando Pessoa bere lehen idazlanak, *A Aguia* aldizkarian. Lusitanismo eta saudosismoaren garaia zen literatura portugesean, berbizkunde eta eztabaida aldia orduko abangoardietan, eta berehala eman zen ezagutzera, eztabaidetara bete betean sartu eta jakintza literario aparta erakutsi zuelako.

1913 urteko bere paperetarik dakigunaren arauera, etengabe izkiriartzen zuen, gutxiago ingelesez eta gehiena portugesez. «A Brasileira» tabernako tertuliara joaten zen lagun batzukin. Baina literatura bakarrik egiten zuen, hasiera eta amaierarik gabeko narrazioak, behelaino arteko

poemak, zurrumurru metafisikoak. Bere amari, Hego Afrikara, sarritan bidaltzen zizkion gutunak. Bere lagun minena garai haretan Mario de Sa-Carneiro zen; gero suizidatuko zen poeta hura. *A Aguia* aldizkariko idazkaria ere laguna zuen, Alvaro Pinto. Emakumeekin oso lotsatia omen zen, ez zen haiengana hurbiltzen edo alde egiten zuen. 1913ko martxoan *Impressoes do Crepusculo* izeneko poema idatzi zuen, gerora paulismoa delako korronte literarioa fundatuko zuena, eta sortzear zeuden —1914 urtean erditu bait ziren— Fernando Pessoren heteronimoak, halegia, Alberto Caeiro, Ricardo Reis eta Alvaro de Campos.

*O Marinheiro*, prologo honetan aurkeztu nahi dudana obra, 1913 urteko urrian datatzen da. Argitaratu geroago. Lehenengo, *A Aguia* aldizkariak ez omen zioten onartu, eta ez zen argitaratu *Orpheu* aldizkariaren lehen alean baino, 1915 urtean:

Obra hau —euskaraz *Marinela* izendatu dudana—, ez da erabat kabitzen literatura sailkatzeko usatu ohi diren zakuetarik batetan. Teatroa da, baina egitura arras berezikoa, gertaerarik

gabea; poesia moldekoa ez bada, hagitx poetikoa da; narrazioa ere bada, narrazioaren antsiario behintzat; eta filosofia tratatua ez bada, gogoeta metafisikoa besterik ez da lehen arnasetik azken silabara arte. Orduan, sailkatzekotan, autoreak berak imini zion azpitituloa haintzat hartzea besterik ez dago, «drama estatikoa» dela esan zuen Fernando Pessoa.

Zer da drama estatikoa? Gatazkarik eta mugimendurik ez dagoeneko teatroa da estatikoa. Posible dea gatazkarik eta mugimendurik gabeko teatroa? Fernando Pessoa baietz erakusten entseiatu zen eta, areago, teatrogintza drama estatiko eta lirikorantza zihoala uste osoan zegoen. Drama estatikoan argumendua ez da ekintzen bilakaera eta ondorioetan oinarritzen, dramaren haria, obra honetan erakusten denez, arimaren biluzketa hutsean finkatu daiteke. *O Marinheiro* honetan, hain zuzen, errealitatearen ate zein leihoak hertsu eta lengoaiaren eta ametsaren bidez arima azaltzeko situazioak kreatzen ahalegintzen da Fernando Pessoa. Bizitzaren tentsioa lekorean bilatu beharrean per-

tsona barruan topatzen da, arimaren teatroa izendatzea otutzen zaidan zerbait eginaz.

Erreferentzien aldetik, kritika literarioaren aipamenak ekarriez gero, modu desberdinez interpretatu da *O Marinheiro*. Kritiko batzuek (Maria Teresa Rita Lopes, *Fernando Pessoa et le Drame Symboliste*, Paris, 1977) teatro sinbolistaren erroak somatu dituzte, Maurice Maeterlinck autorearen herentzia hain zuzen. Beste kritiko batzuek (Maria de Fatima Marinho, *Actas de Congresso International de Estudos Pessoaanos*, Porto, 1979), berriz, absurdoaren teatroa ikusi nahi dute Fernando Pessoarenean, Samuel Beckett eta Eugene Ionesco gerokoagoen aintzindari legez edo. Erlazioak bilatzen abiatuez gero, nahiz eta kritikoa ez naizen, eta horregatik behar bada, *cantigas de amigo* zaharren aidea hartzen diet nik dontzeilen solasei. Irakurketa arras desberdinak egin daitezke, beraz, desberdinak eta hurrinak. Dena dela, *O Marinheiro* Fernando Pessoren obra guziaren kontextoan entelegatzen da egokien. Hain zuzen, drama estatiko honetan daude 1914 urteaz geroztik heteronimoek, bakoitzak bere tankera berezian, zabaldu eta

borobilduko zituzten gairik funtsezkoenak, eta bizitzari eta lengoaiari buruzko ideiak batez ere, gero *Livro do Desassossego* delakoan agian beste liburuetan baino era zuzenagoan azaltzen direnak.

Hemen ez dagoen lekua balego, interesgarria litzateke erakustea Fernando Pessoaren obra ugariak ez direla hari puska solteak, baizik eta sare zabal baten zatiak, eta sare handi horretan *O Marinheiro*, besteak beste, lehen lokarrien artean dagoela. Liburu honen epilogoztat hogeita zazpi inguru ohar erantsi ditut, hitz eta esaldi konkretuen komentarioak eginaz batzutan eta Fernando Pessoaren texto zatiak argibide eta osagarritzat emanez bestetan. Fernando Pessoaren obra den sare zabal hori haritxo buru hoietan antzematen hasi daiteke behar bada.

Bestalde, itzultzea deliberatzean zergatik *O Marinheiro* hau, eta ez beste edozein, hautatu dudan galdetzen badidazu, ez dut arrazoi handirik, salbu eta irakurtzean laket egin zitzaidala. Itzultzea, gero, ber irakurtzeko modu on bat da eta, gainera, irakurlea zerbaitetara gonbidatzeko modua ere bai.



Gonbidatu egin nahi zaitut, bada, Fernando Pessoren kantiga aideko mintzairaren bidez edo lur gotor gisa habitatzen dugun gure hizkuntzaren bidez, hiru dontzeila geldi eta misterio-tsuen eta laugarren geldiago eta misterioitsuagoren gelara. Gela honetan, Fernando Pessok aipatzen zituen bizitza bietatik egiazkoenean, amets eta bildur batzuk besterik ez duzu aurkituko, libururik gabe eta egunsentira orduko leihotik begiratu eta bizitzari buruz gogoeta eginez eduki ditzakezun zentzazio berberak, agian, baina sar zaitez.

**Joseba Sarrionandia**

# MARINELA

(kuadro bakarreko drama estatikoa)

*Gaztelu zaharren bateko gela. Gela zir-  
kularra dela ikusten da. Erdian, oinarri  
baten gainean, hil kaxa bat dago eta  
bere barruan dontzeila bat, zuriz jan-  
tzia. Lau aizkora kantoietan. Eskui-  
nean, gela imajinatzen duenaren ia  
aurrez aurre, leiho bakarra dago, altua  
eta hestua, zeinetik mendi hurrin biren  
artean itsasoaren zati tipi bat ikusten  
den.*

*Leihoaren aldetik hiru dontzeila daude  
gaubeilan. Lehena leihoaren aurrean  
eserita dago, eskuineko goiko aizkorari  
bizkarra emanaz. Beste biak, bakoitza  
leihoaren alde batean eserita daude.  
Gaua da [1] eta hilargitasun [2] arras-  
to mehe bat dago.*

**LEHEN BEILARIAK:** Oraindik ez du batere ordurik  
jo.

**BIGARRENAK:** Ezin izan da entzun. Ez dago erloju-rik hemen inguruan. Gutxi barru argituko du eguna.

**HIRUGARRENAK:** Ez: ortzemuga beltza da.

**LEHENAK:** Zergatik ez dugu, ene ahizpa [3], behiala izan ginena kondatuaz atsedean hartzen? Ederra da, eta faltsua da beti...

**BIGARRENAK:** Ez, ez gaitezen horretaz mintzo. Gainera, izan ginena gu zerbait?

**LEHENAK:** Agian. Ez dakit. Baina hala ere beti da ona iraganaz mintzatzea... Orduak erori dira eta gu isilik egondu gara. Ene aldetik, kandela haren sugarrari begira egondu naiz. Batzutan dardaratu, bestetan horitu, bestetzutan zurbildu egiten da. Nik ez dakit hori zergatik gertatzen den. Baina badakigu, ene ahizpak, zergatik gertatzen den edozer gauza?...

*(isil unea)*

**BERBERAK:** Iraganaz mintzatzea — hori ederra da agian, alferrikakoa delakoz eta hainbesteko atsekabea ematen duelakoz...

**BIGARRENAK:** Mintza gaitezen, nahi baduzue, ukan ez dugun iragan batez...

**HIRUGARRENAK:** Ez. Apika izan genukeen...

**LEHENAK:** Hitzak besterik ez dituzue esaten. Hain tristea da mintzatzea! Geu ahaztutzeko modu hain faltsua da!... Eta paseatzen bagara?...

**HIRUGARRENAK:** Non?

**LEHENAK:** Hemen, alde batetik bestera. Sarritan, ametsen [4] bila abiatzeko modua da.

**HIRUGARRENAK:** Zeren bila?

**LEHENAK:** Ez dakit. Zergatik jakin behar dut?

*(isil unea)*

**BIGARRENAK:** Oso tristea da herri guzi hau... Ni behiala bizi nintzenekoa ez zen hain tristea. Ilunabarrean ehuntzen aritzen nintzen, ene leihoan eserita. Leihoak itsasorantza [5] ematen zuen eta noizean behin irla bat zegoen hurrinean. Sarritan, ez nuen ehuntzen; itsasorantza begiratu, eta ahaztu egiten nuen bizitza. Ez dakit zoriontsua nin-

tzen. Engoitik ez naiz itzuliko agian ni sekula izan ez naizena izatera...

**LEHENAK:** Hemendik lekorean, ez dut itsasoa sekula ikusi. Han, leiho haretatik, itsasoa ikusten deneko bakarra bait da, hain guti ikusten da!... Ederra dea beste lurraldeetako itsasoa?

**BIGARRENAK:** Beste lurraldeetako itsasoa bakarrik da ederra dena. Guk ikusten dugunak, sekula ikusiko ez dugun haren saudadeak [6] ematen dizkigu beti...

*(isil unea)*

**LEHENAK:** Ez dugu esan gure iragana kondatu behar dugula?

**BIGARRENAK:** Ez, ez dugu esan.

**HIRUGARRENAK:** Zergatik ez dago erlojurik gela honetan?

**BIGARRENAK:** Ez dakit... Baina horrela, erlojurik gabe, hurrinagoa eta misterioitsuagoa da guzia. Gaua gauarenagoa da... Nork daki zein ordu den jakinez gero honela mintzatu ginatekeen?

**LEHENAK:** Ene ahizpa, tristea da guzia ene baitan. Abenduak iragaiten ditut ariman... Leihorantza ez begirutzen ahalegintzen naiz... Badakit handik, hurrinean, mendiak ikusi daitezkeela... Ni zoriontsua izan nintzen mendien bestaldean, behiala... Ni haurtxoa nintzen. Liliak biltzen nituen egun osoan, eta inork ez kentzeko eskatzen nuen lokartu baino lehenago... Ez dakit zertan den hau ezinbestekoa, baina negar egiteko gogoia ematen dit... Hemendik hurrin bakarrik izan ahal zen hori... Noiz helduko da eguna?

**HIRUGARRENAK:** Zer axola? Beti heltzen da modu berean... beti, beti, beti...

*(isil unea)*

**BIGARRENAK:** Konda ditzagun ipuinak bata bestearentzat... Nik ez dakit ipuinik, baina hori ez da kaltea... Bizitzea bakarrik da kaltegarria. Bizitzak ez diezagula ukitu [7], ez eta erropen ertza ere... Ez, ez zaitezte altzatu. Hori keinu bat litzateke eta keinu bakoitzak

amets bat eteten du... Une honetan ni ez naiz egon ametsetan, baina laket zait ametsetan egon nintekeela pentsatzea... Baina iragana — zergatik ez gara iraganaz mintzo?

**LEHENAK:** Ezetz erabaki dugu... Laster ihalgiko da eguna eta damutu egingen gara... Argiarekin lokartu egiten dira ametsak... Iragana ez da amets bat besterik... Gainera, ametsa zer ez den ere ez dakit... Oraina arretaz begiratu ez gero, iadanik iragan dela iruditzen zait... Zer da edozer gauza? Zelan iragaiten da? Zelangoa da barrutik bere iragaiteko modua?... Ai, mintzo gaitezen, ene ahizpok, mintzo gaitezen errime, mintzo gaitezen guziok batera... Isiltasuna gorpuzten hasten da, gauzatzen hasten da... Lainoaren antzerako zerbaitek inguratzen nauela senditzen dut... Ai, mintzo, mintzo zaitetze!

**BIGARRENAK:** Zertarako?... Zuei bioi begira nago eta, berehala, ez zaituztet ikusten... Gure artean amildegia hasi direla iruditzen zait... Ikusi ahal zaituedalako ideia ahitu

behar dut zuek ikusteko... Aide bero hau hotza da barruan, arima ukitzen duen lekuan... Esku ezinezkoak senditu behar nituzke orain ene adarsetan irristatzen — zerenen [8] mintzatzeko modua da (*belau-nen gainean gurutzatzen ditu eskuak. Isil unea*). Duela gutxi, ezertaz pentsatzen izan ez dudanean, ene iraganaz pentsatu dut.

**LEHENAK:** Ni ere eneaz egon behar izan naiz pentsatzen...

**HIRUGARRENAK:** Nik iada ez dut jakin zertan egon naizen pentsatzen... Apika besteen iraganaz... sekula existitu ez den jende xarman-garriaren iraganaz... Ene amaren etxe aldamentetik errekatxo bat zihoan... Zergatik ote zihoan korrika, eta zergatik ez zihoan hurrinagotik edo hurbilagotik?... Badea arrazoirik edozein gauza den bezala izateko? Badea horretarako ene eskuak bezalako arrazoi egiazko eta errealik?...

**BIGARRENAK:** Eskuak ez dira egiazkoak ez errealak... Gure bizitzan biztanle diren misterioak dira... Batzutan, ene eskuak soegitean Jainkoaren bildurra dut... Ez dago haizerik



kandelen sugarrak mogitzeko, eta begira ezazue, mogitu egiten dira... Norantza abailtzen dira?... Hau atsekabea inork erantzun baleza!... Musika arrotzak entzuteko desiran nago, orain beste lurraldeetako palazioetan agian jotzen ari direnak... Hurrin da beti ene ariman... Apika, humea nintzelarik itsaso bazterrean uhainen atzean korrika ibiltzen nintzelakoz. Eskutik hartuta eramane nuen bizitza arroken artean, marea behean, itsasoak bere eskuak bular gainean gurutzatu eta aingeru estatua gisa lokartu dela dirudienean, egundo inork gehiago begira ez dezan...

**HIRUGARRENAK:** Zure esaldiak ene arima ekarri didate gogora...

**BIGARRENAK:** Egiatzakoak ez direlako agian... Ia ez dakit esaten ditudan... Aditzen ez dudane abots batek sekretuan murmuriatzen dizkidanak segituaz errepikatzen ditut... Baina itsaso bazterrean benetan bizi izan naiz agian... Kulunkatzen den guzia maite dut... Uhainak daude ene ariman. Oinez noalarik zabu eginez noa... Orain oinez ibili egin

nahi nuke... Ez dut egiten, ezen egitea alferrikakoa delakoz, egin nahi dena egitea batez ere... Mendiarena dut bildurra... Ezinezkoa da beren geldotasun eta handitasun hori... Harrizko sekreturen bat dadukate agian. Eta ez dute dadukatenik jakin nahi... Leiho honetatik, azaldu eta, mendiak ez ikustea lortuko banu, une batez ene arimara azalduko litzateke nonbait, zeinean nizoriontsu senditu...

**LEHENAK:** Nik, ene aldetik, mendiak maite ditut... Mendien honunzkaldean da bizitza beti itsusia... Harunzkaldean, ene ama bizi den lekuan, tamarindoen gerizpean eseritzen ginen eta beste lurraldeetara joateaz mintzatzen... Han iraunkorra eta zoriontsua zen guzia, hegazti biren kantua bezala, bakoitza bidearen alde batetik... Oihanak ez zuen hutsunerik, gure pentsamenduak besterik... Eta zuhaitzek lurrian, beren itzalak ezik, beste baretasun bat islada zezatela zen gure ametsa... Halantxe bizi ginen benetan, ni eta ez dakit inor gehia-

go... Esaidazue hau egia izan dela, negar egin beharrik ez dezadan...

**BIGARRENAK:** Arroka artean bizi nintzen eta zeltan zegoen itsasoa... Ene saiaren ertza hozkirria eta gazia zen ene zango biluziak astintzean... Tipia eta arrotza nintzen... Gaur bildurra dut izan nintzelakoz... Oraina lo egiten dudala iruditzen zait... Hitz egidazue fatei [9] buruz. Ez dut sekula haiei buruz inor mintzatzen entzun... Itsasoa handiegia zen haiei buruz pentsa erazteko... Bizitzan atsegina da ttipia izatea... Zoriontsua zarea, ene ahizpa?

**LEHENAK:** Une honetan hasten naiz behiala izana izaten... Gainera, hura guzia ilunbetan iragan zen... Zuhaitzek nik baino gehiago bizi zuten hura... Ez zen sekula iritsi eta nik ezer gutti espero nuen. Eta zu, ahizpa, zergatik ez zara mintzatzen?

**HIRUGARRENAK:** Izugarria egiten zait esango dizuedana laster esanda ukaitea. Oraingo ene hitzak, esan eta berehala, iraganarenak izanen dira iada, enegandik lekora geratuko dira, ez dakit non, finko eta zori-

gaitzekoak... Mintzatzen ari naizelarik, hauxe pentsatzen dut ene eztarrian, eta ene hitzak jende iruditzen zaizkit... Neu baino handiagoa da ene bildurra. Ene eskuan, ez dakit zelan, ate ezezagun bateko giltza senditzen dut. Eta ni guzia gutun edo sakrario bat naiz, bere buruaz kontzientea. Horregatik egiten zait bildurgarria joatea, oihan ilunean barrena bezala, mintzairaren misterioan... Eta, finean, nork daki neu ote naizen honelakoa eta horixe ote den dudarik gabe senditzen dudana?...

**LEHENAK:** Hain zaila da geure burua erreparatzen dugunean zer senditzen den jakitea!... Bizitzea ere arras zailagoa da, norberak bizi dela jakinez gero... Mintza zaitez, bada, bizi zarela ohartu gabe... Ez zeniguna nor zinen esan behar?

**HIRUGARRENAK:** Behiala nintzenak iadanik ez du nor naizen oroitzen... Izan nintzen zoriontsuaren gaixoa!... Arramen itzalen artean bizi izan nintzen, eta hosto ikaratiak dira ene ariman guziak. Eguzkitan nabilenean hozkirria da ene itzala. Ene egunen ihesa

iturrien alboan iragan nuen, eta haietan bustitzen nituen ene hatz buru lasaiak... Batzutan, laku bazterretan, makurtu eta ene burua soegiten nuen [10]... Irribarre egitean, ene hortzak misterioitsuak ziren uretan... Beren irribarrea beraiena zen bakarrik, eneaz independientea... Beti arrazoirik gabe egiten nuen nik irribarre... Hitz egidazue heriotzaz, den guziaren amaieraz, oroitzeko arrazoiren bat sendi dezadan...

**LEHENAK:** Ez gaitezen mintzo ezertaz, ezertaz ere [11] ... Hotz gehiago egiten du, baina zergatik egiten du orain hotzago? Ez dago arrazoirik hotzago egiteko... Zertarako mintzatu behar gara?... Hobe da kantatzea, ez dakit zergatik... Kantua, jendeak gaez kantatzen duenean, bat-batean sartu eta gu kontsolatuaz gelako giroa animatzen duen pertsona [12] alai eta bildurrik gabea da... Ene iraganeko etxean kantatzen genuen kantu bat kanta dezaket zuentzat. Zergatik ez duzue ene kantua nahi?

**HIRUGARRENAK:** Ez du merezi, ene ahizpa... Inor kantatzen ari den artean, nik ezin dut neurekin egon. Oroitu ezina behar dut. Eta gero ene iragan [13] guzia beste bilakatzen da eta negar egiten dut ene baitan daradaman bizitza hil eta sekula bizi ez dudan bat. Beranduegi da beti kantatzeko, ez kantatzeko ere beti beranduegi den bezala...

*(isil unea)*

**LEHENAK:** Laster agertuko da eguna... Gorde dezagun isiltasuna... Bizitzak hala nahi du. Ene sortetxearen aldamenean laku bat zegoen [14]. Hara joan eta bazterrean eseritzen nintzen, uretara ia erorita zegoen enbor baten gainean... Enbor buruan eseritzen nintzen eta uretan bustitzen nituen oinak, behatzak beheruntz luzatuaz. Gero zuzen-zuzen begiratzen nuen oin burueta-rantza, baina ez zen oinak ikusteko. Ez dakit zergatik, baina sekula ez dela existitu iruditzen zait laku hau... Lakua gogoratzea enetzat ezertaz oroitzeko ezintasuna beza-

lakoa da... Nork daki hau zergatik diodan eta oroitzen dudana bizi zuena neu izan nintzen?...

**BIGARRENAK:** Itsaso bazterrean tristeak gara amets egiten dugunean... Ezin dugu izan izan nahi duguna, izan nahi duguna iraganen izandu izatea nahi dugulako... Uhai-na hautsi eta aparra burburka ari denean, badirudi mila abots nimino mintzo direla. Aparra ez zaio inori hozkirria iruditzen ez bada osotzat hartzen duenari... Asko da guzia eta guk ez dakigu ezer... Nahi duzuea nik itsas bazterrean amets egiten nuena kondatzea?

**LEHENAK:** Kondatu dezakezu, ene ahizpa; baina gure artean ez dugu zure konduaren beharrik [15]... Ederra bada, atsekabea dadukat iada entzun ondoren. Eta ederra ez bada, itxadon... konda ezazu aldatu eta gero...

**BIGARRENAK:** Kondatu behar dizuet. Ez da zeharo faltsua, ezen agian deusere ez bait da zeharo faltsua. Hala izan da seguru asko... Egun batez, arroka baten gain hotzean etzunik agertu nintzen, eta ahazturik nuen

aita eta ama nituela eta ene baitan haur-  
tzaroa eta beste egun batzu izandu zirela  
— egun horretan, ikustea neuk bakarrik  
pentsa nezakeen gauza bat ikusi nuen  
hurrutian, bela baten iragaite geldoa...  
Gero desagertu egin zen... Ene baitan erre-  
paratzean, ene amets hori iada banuela  
ohartu nintzen... Ez dakit non hasi zen...  
Eta ez dut sekula beste belarik ikusi...  
Hemen portutik irteten diren itsasuntzieta-  
ko ezein belak ez du haren antzik, ez eta  
hilargiarekin untziak hurrin eta astiro ira-  
gaiten direnean ere...

**LEHENAK:** Leihotik itsasuntzi bat dakusat hurri-  
nean. Ikusi zenuen hura agian...

**BIGARRENAK:** Ez, ene ahizpa, ikusten duzun hori  
porturen baten bila doa seguru asko...  
Ezina da nik ikusi nuen itsasuntzi harek  
porturik bilatzea...

**LEHENAK:** Zergatik erantzun didazu?... Baliteke...  
Ez dut ikusi leihotik batere itsasuntzirik...  
Bat ikusi nahi izan dut eta atsekabea ez  
edukitzeko mintzatu natzaizu haretaz...



Orain esaiguzu zer amets egin zenuen itsaso bazterrean...

**BIGARRENAK:** Irla hurrinen batetan galdurikako marinel batetaz egin nuen amets. Irla horretan palmondo irmoak zeuden, gutxi, hegazti noragabeek inguraturik... Ez nuen ikusi inoiz pausatzen ziren... Naufragatu eta, salbatu zenez geroztik marinela han bizi zen... Bere aberrira itzultzeko modurik ez zuenez, eta bere aberriaz oroitzen zen bakoitzean arrenguratu egiten zenez, sekula ukan ez zuen aberri bat amesten hasi zen; beste aberri bat, beste lurralde moeta bat beste paisaia moeta batzukin, eta beste jende, eta kaleetan ibiltzeko eta leihoetara azaltzeko beste modu bat imajinatu zuen izan zela berea... Ordurik ordu aberri faltsu hori eraikitzen zuen ametsetan, eta ametsetan zegoen etengabe, egunez palmondo handien itzalpe laburrean. Ertz zorrotzez isladatzen bait zen lur haretsu eta beroan; gauez, hondartzan etzunik, bizkar gainean eta izarretaz ohartu gabe.

**LEHENAK:** Eta ez egon horrelako amets baten itzala ene esku zabalduen gainean beltzuzenez isladatuko duen zuhaitzik!...

**HIRUGARRENAK:** Utzi egiozu mintzatzen... Ez egiozu hitza kendu... Zerenek erakutsi zizkieten hitzak ezagutzen ditu... Bera entzuteko zabaltzen ditut betazalak... Esaiozu, ene ahizpa, esaiozu... Bihotzean min dut, itsaso bazterrean amets egin zenuenean zeu izan ez nintzelakoz [16]...

**BIGARRENAK:** Urte eta urteetan barrena, egunik egun, marinela amets etengabeen bere sorterri berria eraikitzen zuen... Ametsezko harri bat imintzen zuen egunero ezinezko edifizio horretan... Laster, iada hainbeste aldiz ibilitako lurraldea edukiaz zihoan. Milaka ordu oroitzen zituen iada bere itsasertzen luzeran ibiltzen iraganak. Bazekien ifarraldeko halako kalan zein koloretakoak ohi ziren oskorriak, eta zein suabea zen sartzea, gau zarratuan eta bere anima itasuntziak irekitzen zuen uraren murmurioan sostengaturik, hegoaldeko portu handi

batetara, non behiala iragan bait zuen,  
zoriontsu agian, bere gazte aldiko...

*(isil unea)*

**LEHENAK:** Ene ahizpa, zergatik isildu zara?

**BIGARRENAK:** Ez da sobera mintzatu behar... Bizitzak beti zelatzen gaitu... Ordu guziak dira ametsen amak, baina hau ez da jakin behar... Gehiegi mintzo naizenean enegandik bereizten hasten naiz eta ene burua mintzo dela entzuten. Horrela, ene buruaz gupidatzen naiz, eta larregi senditzen dut bihotza. Orduan, semetxo bat bezala kulunkatzeko, ene besoetan edukitzeko gogo negartia dut... Begira: ortzemuga zurbildu da... Eguna ez da iadanik berandutuko... Beharrezkoa dea ene ametsaz zuei oraindik ere gehiago esatea?

**LEHENAK:** Konda ezazu, ene ahizpa, konda ezazu beti... Ez zaitetz kondatzez gelditu, ez zaitetz sortzen diren egunetaz ohartu... Eguna ez da inoiz sortzen bere burua ordu amestuen magalean imintzen duenarentzat... Ez itza-

zu eskuak okertu. Horrela, suge ezkutua  
antzerako hotsa sortzen da... Hitz egiguzu  
askozaz gehiago zure ametsaz. Hain da  
benetakoa non eta batere zentzurik ez  
duen. Zuri entzuteaz pentsatu bakarrik eta  
musika egiten zait ariman...

**BIGARRENAK:** Bai, gehiago esanen dizuet ene  
ametsaz. Gainera, kondatzeko beharra dut.  
Kondatuz noan heinean, ene buruari ere  
kondatzen diot... Hiru dira entzuleak...  
(*Bat-batean, hil kaxarantza begira, eta  
larri*) Hiru ez... Ez dakit... Ez dakit zenbat...

**HIRUGARRENAK:** Ez zaitez horrela mintzo... Konda  
ezazu arin, konda ezazu berriro... Ez ezazu  
zenbatek entzun dezaketen esan... Guk ez  
dakigu sekula zenbat gauzek bizi eta ikusi  
eta entzuten duten... Itzuli zaitez zeure  
ametsera... Marinela. Zer amets egiten  
zuen marinela?

**BIGARRENAK:** (*Ahapeka, ahots oso geldoaz*)  
Hasieran paisaiak kreatu zituen; gero ziuta-  
teak sortu zituen; kaleak eta zeharbideak  
sortu zituen gero, banan-banan, bere ari-  
maren materialiaz zintzelatuaz — banan-

banan kaleak, hauzoric hauzo, kaietako harresietaraino, non gero portuak eraiki bait zituen... Banan-banan kaleak, eta ibiltzen eta leihoetarik begiratzen zituen jendea... Jendea ezagutzen hasi zen, doi-doi berrezagutzen duenaren gisan... Beren bizitza iraganak eta solasak ezagutuaz zihoan, eta guzi hori doi-doi paisaiak amestu eta ikusiaz doanaren gisan... Gero bidaian abiatzen zen, esnatua, berak kreaturiko lurraldean barrena... Eta hala joan zen bere iragana eraikiaz... Laster beste bizitza lehenagoko bat eduki zuen... Aberri berri honetan, sortu zeneko lekua, gaztaroa iragan zueneko lekuak, arribatu zeneko portuak zeduzkan iadanik... Haurtzaroko lagunak edukiaz zihoan apurka eta gero bere gizonaldiko adiskide eta etsaiak... Berak izandakoarekiko desberdina zen guzia — ez lurraldea, ez jendea, ez bere iragana, ez ziren izandakoak bezalakoak... Jarrai dezadala eskatzen didazue?... Hain nahigabea zait honetaz mintzatzea!... Orain, honetaz mintzo natzaizuelarik, lake-

tago litzaidake zuei beste amets batzutaz mintzatzea...

**HIRUGARRENAK:** Segi ezazu, nahiz eta zergatik ez jakin... Zenbat eta gehiago entzuten dizudan, hainbat eta gutiago naiz enea...

**LEHENAK:** Hobe dea, benetan, segitzea? Amaiera ukan behar ote du edozein istoriok? Edoze-lan ere esaizu... Hain axola gutikoa da dioguna edo ez dioguna... iragaiten ditugun orduak gaubeilatu egiten ditugu... Gure zeregina bizitza bezain alferrikakoa da...

**BIGARRENAK:** Euri handia egin eta, ortzemuga oso zalantzan zegoen egun batetan, amets egitez gogaitu egin zen marinela... Orduan bere benetako aberria oroitu nahi izan zuen..., baina ohartu zen ez zela ezertaz oroitzen, bere aberria ez zela existitzen beretzat... Haurtzaroren bat oroituez gero, bere ametsezko aberrikoa zen gaztaroren bat oroituez gero, berak kreaturikoa zen... Bere bizitza guzia berak amesturiko bere bizitza izan zen... Eta beste bizitzarik ezin izan zela ohartu zen... Berak, ez kale bat, ez irudi bat, ez amaren keinu bat ere gogo-

ratzen ez bazuen... Eta amestu uste zuen bizitzan, egiazkoa zen guzia eta izandua zen... Ezin zuen beste iraganik amestu ere, beste iragan bat izan zukeela, guziok bezala, une bat, sinetsi dezakezue... Oi ene ahizpok, ene ahizpok... Zer den ez dakidan, esan ez dizuedan zerbait dago... guzi hau adierazteko zerbait... Ene arimak etsitzen nau... Ia ez dakit mintzatzen egon naizen... Hitz egidazue, oi hu egidazue esnatu nadin, hemen zuen artean nagoela eta amets besterik ez diren gauzak daudela jakin dezadan...

**LEHENAK:** (*Ahotsa oso ahapeka*) Ez dakit zer esan... Ez naiz gauzak begiratzera ausartzzen... Zelan jarraitzen da ametsa?...

**BIGARRENAK:** Ez dakit zelan zen gainerakoa... Ia ez dakit zelan zen gainerakoa... Zergatik egon behar da gehiago?...

**LEHENAK:** Zer gertatu zen ondoren?

**BIGARRENAK:** Ondoren? Zeren ondoren? Ondoren, zerbait ote dago?... Egun batez itsasuntzi bat zetorren... Egun batez itsasuntzi bat zetorren... — Bai, bai... horrela bakarrik

izan zitekeen... — Egun batez itsasuntzi bat zetorren, eta irla horretatik iragan zen, eta han ez zegoen marinela...

**HIRUGARRENAK:** Apika bere aberrira itzulia zatekeen... Baina zeinetara?

**LEHENAK:** Bai, zeinetara? Zer egin ote zioten marineleri? Ba ote daki inork?

**BIGARRENAK:** Zergatik galdetzen didazu? Badea ezertarako erantzunik?

*(isil unea)*

**HIRUGARRENAK:** Zeharo beharrezkoa dea, zeure amets barruan ere, marinela hori eta irla hori existitu izana?

**BIGARRENAK:** Ez, ene ahizpa, deus ere ez da zeharo beharrezkoa.

**LEHENAK:** Gutierrez, zelan amaitu zen ametsa?

**BIGARRENAK:** Ez zen amaitu... Ez dakit... Ametsak ez dira amaitzen... Ba dakita nik zihur ametsetan segitzen ez ote dudan, ezjakinean amets besterik egiten ez ote dudan, amets egitea nik ene bizitza deritzadan gauza mugaezin hau ez ote den?... Ez egidazu hitz



gehiago egin... Zihur egoten hasi naiz edo-zertaz, zertaz den ez dakidala... Niganantzaz datoz, hau ez den gau batetan zehar, ezezaguna zaidan izu baten urratsak... Nor esnatzera joan naiz ni kondatu dizuedan ene ametsarekin?... Bildur moldegabe bat dut, Jainkoak ene ametsa debekatu ote duen... Ene ametsa Jainkoak zilegi dituenak baino errealagoa da seguru asko... Ez zaitzete isilik egon... Gaua iragaiten ari dela esaidazue behintzat, nahiz eta nik badakidan... Begira, eguna heltzen hasi da... Begira: egun errealak agertu behar da... gelditu gaitzen... Ez dezagun gehiago pentsatu... Ez gaitzen barru abentura honetan segitzen entseiatu... Nork daki zer dagoen bere azkenburuan?... Hau guzi hau, ene ahizpok, gauean iragan da... Ez dezagun honetaz gehiago hitz egin, ez norberari ere... Humanoa eta egokia da, gutariko bakoitzak bere tristura jarrera har dezala.

**HIRUGARRENAK:** Hain ederra izan da zuri entzutea... Ez esan ezetz... Badakit ez duela merezi izan... Horregatik iruditu zait ede-

rra... Ez da horregatik izan, baina utzi egidazu esaten... Gainera, zure abotsaren musikak, zeure hitzak baino are gehiago entzun dudalarik, nahigabez uzten nau, musika baino ez delakoz agian...

**BIGARRENAK:** Gauza guziek uzten dute nahigabez, ene ahizpa... Pentsatzen duten gizonak guziaz gogaitzen dira, guzia aldatzen delakoz... Iragaiten diren gizonetan frogatzen da hori, guziarekin aldatzen direlako... Eternala eta ederra ametsa besterik ez dago... Zergatik gaude oraindik ere solasean [17]?...

**LEHENAK:** Ez dakit... (*Hil kaxarantza begira, abots isilagoaz*) Zergatik heltzen da heriotza?

**BIGARRENAK:** Apika amets aski egiten ez delakoz...

**LEHENAK:** Baliteke... Ez litzatekea orduan hobe gu ametsean gordetzea eta gure bizitza ahaztutzea, heriotzak ahaztu gaitzan?

**BIGARRENAK:** Ez, ene ahizpa, deus ere ez da hobe [18]...

**HIRUGARRENAK:** Ene ahizpok, iada eguna da... Begira ezazue, mendien lerroa liluratzen...

Zergatik ez dugu negar egiten?... Han dagoela itxurak eginez dagoen hura gu bezain eder eta gaztea zen, eta berak ere amets egiten zuen... Zihur nago bere ametsa zela guzietarik ederrena... Zertaz amets egiten ote zuen?...

**LEHENAK:** Isilago mintzo zaitez. Guri entzuten ari da agian, eta iada badaki zertarako diren ametsak...

*(isil unea)*

**BIGARRENAK:** Apika ez da egia guzi honetako deus ere... Isiltasun guzi hau, eta gorpu hil hau, eta sortzen ari den egun hau, apika ez dira amets besterik... Begira ezazue ondo guzi hau... Bizitzarena dela iruditzen zaizue?...

**LEHENAK:** Ez dakit. Ez dakit zelan izan daitekeen bizitzarena... Ah, zein geldirik zauden! Eta zure begiak hain triste, alferrik daudela dirudi...

**BIGARRENAK:** Bestela ez du merezi triste egotea... Ez duzu isil gaitezen nahi? Hain arraroa da

bizirik egotea... Sinesgaitza da gertatzen den gauza, marinelaren irlan bezala mundu honetan ere... Begira ezazue, iada ferde dago ortzea... Ortzemugaren irribarrea urrezkoa da... Begiak erretzen zaizkidala senditzen dut. Negar egitea pentsatu dudalakoz...

**LEHENAK:** Negar egin duzu, egin ere, ene ahizpa.

**BIGARRENAK:** Apika... Ez du axola... Zer da hotz hau?... Ah, orain da... orain da!... Esaidazue hau... Esaidazue oraindik gauza bat... Zergatik ez ote da guzi honetan marinela gauza erreal bakarra, eta gu eta hemengo guzi hau bere ametsa besterik?...

**LEHENAK:** Ez zaitetz gehiago mintzo, ez zaitetz gehiago mintzo... Hori hain harrigarria denez egia da agian... Ez ezazu segitu... Ez dakit zer esan behar duzun, baina larregi da agian arimak entzun ahal izateko... Esatera iritsi ez zarenaren bildur naiz... Begira, begira, eguna da iada... Begira eguna... Ahalegindu zaitetzte eguna besterik ez erreparatzen, egun erreala, han lekorean... Begira ezazue, begiratu... Kontsolagarria

da... Ez ezazue pentsa, ez begiratu pentsamendua... Begiratu zelan heltzen den, eguna... Zilarrezko lurrean urrea bezala dirdiratzen da. Laino meheak, koloreztatzen diren heinean borobiltzen dira... Eta ezer ere ez balitz, ene ahizpak?... Guziaz, nolabait, zeharo ezer eza balitz?... Zergatik begiratu duzu horrela?...

*(Ez diote erantzun. Eta inork ere ez du ezelan begiratu)*

**BERBERAK:** Zer izan da esan duzuna, izutu nauen hori?... Hainbeste senditu dudanez, ia ez dut zer izan den ere ikusi... Esaidazu zer izan den, nik bigarrenkoz entzunik lehen bezainbeste bildur har ez dezadan... Ez, ez... Ez ezazu deus ere esan... Ez dizut erantzun diezadazun galdetzen, ez bada mintzatzeagatik soilik, ene burua pentsatzen ez uzteko... Izan nintzena oroituko dudan bildurra dut... Baina gauza handi eta izugarria izan zen, Jainkorik badagoela bezala... Gure solasa iada amaiturik ukan

behar genuen... Duela hainbeste denbora galdu bait du gure solasak zentzua... Gure artean dagoen eta mintza erazten digun zera larregi luzatzen da... Hemen gauza gehiago dago, gure arimak baino... Eguna iada argiturik egon behar litzateke [19]... Esnaturik egon behar lirateke... Berandu dator guzia... Zer ari da gure izuarekin batera gauzetan gertatzen?... Ai, ez nazazue abandonatu... Mintzo zaitetze enekin, mintzo zaitetze... Mintzo zaitetze enekin batera, ene abotsa bakarrik gera ez dadin... Bildur gutxiago diot ene abotsari ene abotsaren ideiarri baino, ene baitan, mintzatzen ari naizela ohartzen banaiz...

**HIRUGARRENAK:** Zein abots da mintzatzen zareneko hori? [20]... Beste batena da... Hurrin antzeko batetarik dator...

**LEHENAK:** Ez dakit... Ez egidazu hori oroit erazi... Bildurraren abots zorrotz eta dardartiaz mintzatu naiz agian [21]... Baina iada ez dakit zelan mintzatu... Amildegia zabaldu da ni eta ene abotsaren artean... Guzi hau, solas guzi hau eta gau hau eta bildur hau,

amaiturik egon behar litzateke guzi hau, bat-batean amaitu behar litzateke, azaldu diguzun izugarriaren ondoren... Ahaztutzen ari naizela hasi naiz senditzen, esan duzun hori, eta antzerako izua adierazteko modu berriren batez oihukatu beharko nukeela pentsa erazi didan hori...

**HIRUGARRENAK:** (*BIGARREN dontzeilari*) Ene ahizpa, ez diguzu istorio hori kondatu behar izan. Orain arrotzago eta izugarriagoa zait bizirik egotea. Kondatzen ari zinela eta hain oharkabean egon naiz non banandurik aditzen izan bait ditut zure hitzen zentzua eta beren hotsa. Eta zu, eta zure abotsa, eta esaten zenuenaren zentzua hiru zer desberdin zirela iruditu izan zait, mintzo eta dabiltzan hiru kreatura bezala.

**BIGARRENAK:** Hiru zer desberdin dira benetan, bakoitza bizitza berezi eta errealarekin. Jainkoak daki agian zergatik... Ah, baina zergatik mintzo gara? Nork iraun erazten digu mintzatzen? Zergatik mintzo naiz mintzo nahi gabe? Zergatik ez dugu iadanik eguna dela erreparatzen?...

**LEHENAK:** Nork oihukatu lezake gu iratzartzeko! Ene oihuak entzuten ditut ene baitan, baina iadanik ez dakit zein den ene eztarri-rantzako ene gogoaren bidea. Ate haretara norbaitek orain hots egin dezan bildur ukai-teko beharrizan amorratua senditzen dut. Zergatik ez du inork atera hots egiten? Ezinezkoa da eta nik horren bildurra ukan behar dut, zeren bildurra dudan jakitearena... Zein arrotz senditzen naizen!... Iada ene abotsik ez dudala iruditzen zait... Ene-gandik zati bat lokartu egin zen eta gogoe-tan geratu... Ene izua hazi egin da baina iada ez dakit senditzen... Iada ez dakit ari-maren zein aldetan senditzen den... Ene gorputzarekiko ene sendimenduari beru-nezko hil beztidura ezarri diote... Zertarako kondatu diguzu zure istorioa?

**BIGARRENAK:** Iada ez dut oroitzen... Iada ez dut ia oroitzen kondatu dudanik... Duela hainbeste denbora dirudi gertatu zela!... Hau logalea [22], hau gauzak begiratzeko ene modua xurgatzen duen logalea!... Zer da guk egin nahi duguna? Zer egiteko ideia



dugu? Iadanik ez dakit mintzatzea ala ez mintzatzea den...

**LEHENAK:** Ez gaitezen gehiago mintzo. Enetzat, akigarria [23] da mintzatzeko egiten duzuen ahalegina... Mina ematen dit pentsatzen eta esaten duzuenaren artean dagoen hutsuneak... Ene larruan ene zentzuen erdilo izutuaren azalean geratzen da ene kontzientzia... Ez dakit zer den hau, baina senditzen dudana da... Esaldi nahasiak esan behar ditut, apur bat luzeak, esateko zailak izan daitezela... Ez duzuea guzi hau arimarik arima harrapatzen gaituen oihal beltza ehuntzen duen miarma erraldoia bezala senditzen? [24]

**BIGARRENAK:** Ez dut deus ere senditzen... Ene zentzazioak senditzen diren gauzen gisan senditzen ditut... Nor da ni naizena?... Nor da ene abotsaz mintzo dena? [25]. Ai, entzun ezazue...

**LEHENAK eta HIRUGARRENAK:** Nor izan da?

**BIGARRENAK:** Ezer ere ez. Ez dut ezer entzun... Entzun dudala itxura egin dut, zuek entzun duzuela jakin dezazuen eta nik entzuteko

gauzaren bat dagoela sinetsi ahal izateko... Oi, zer izugarria, zer izu intimok deslotzen digu abotsa arimatik, zentzazioak pentsamenduetarik, eta mintzo eta sendi eta pentsa erazten digu gugan denak isiltasuna eta eguna eta bizitzaren inkontzientzia antsiatzen duenean... Nor da gela honetan senditzera goazen guzietan besoa luzatu eta eteten digun pertsona? [26]

**LEHENAK:** Zertarako bildurtu? Ez da izu gehiago kabitzen ene baitan... Astunegia naiz ene sendimenaren altzoan. Erabat hondoratu naiz senditu uste dudanaren lokatz bigunean. Hatzematen eta gaubeilatzen gaituen zeozer sartzen zait zentzu guzietarik. Astunak dira betazalak ene zentzazio guzietan. Ene sentimendu guzietan endregatzen da mihia. Ene keinu guzien ideiak bata bestearekin itsasten ditu logale sakoak. Zergatik begiratu duzu horrela?...

**HIRUGARRENAK:** *(Abots arras geldo eta itzalia)* Ai, orain da, orain da... Bat, esnatu egin da norbait... Badago esnatzen den jendea... Inor sartzean amaitu egingen da guzi hau...

Ordura arte ahalegindu gaitezen izu guzi hau lo eginez egon garen logale luze bat izan dela sinesten... Eguna da iada... Amaitu egin behar da guzia... Eta guzi honetarik, ene ahizpa, zoriontsua zeu bakarrik zarela geratzen da, zeu bakarrik zoriontsu, ametsean sinesten duzulako...

**BIGARRENAK:** Zergatik galdetzen didazue? Zergatik kondatu dut nik? Ez, ez dut uste...

*Oilar bat kantatzen. Argia, bat-batean bezala gehitu egin da. Hiru gaubeilariak isilik eta bata bestea begiratu gabe geratzen dira.*

*Ez oso hurrin, estarta batetan gurdi [27] noragabe bat kexati eta xirrinkari doa.*

# OHARRAK

Epilogo gisako oharrotan, portugesezik euskararako itzulpenari dagozkion komentario batzu egitearekin batera, autorearen beste obra batzutako aipuak ere erantsi ditut, osagarritzat, Fernando Pessoaen zenbait gai bere hurrengo obretan ere zelan agertzen den begiratzea irakurleri laket izango zaiolakoan.

Zenbakiak, bidenabar, textuan zehar hitzen ertzean eman diren zenbakiei dagozkie.

[1] Bernardo Soares delakoaren *Livro do Desassossego* liburuko 170. zatian, gauari buruzko gogoeta hau agertzen da:

*«O noite onde as estrelas mentem luz, ó noite, única coisa do tamanho do Universo, torna-me, corpo e alma, parte do teu corpo, que eu me perca em ser mera treva e me torne noite também, sem sonhos que sejam estrelas em mim, nem sol esperado que illumine do futuro.»*

Euskaraz, guti gora behera, honela eman daiteke:

«Oi gaua, non izarrak gezurrezko argia diren, oi gaua, Unibertsoaren tamainako gauza bakarra, bihur nazazu, gor-

putz eta arima, zeure gorputzaren zati, ni ere ilunbetan galdu eta gau bihur nadin, nigan izar izango den ametsik gabe, etorkizunetik argituko duen eguzki igurikaturik gabe.»

[2] *Luar*, textoan «hilargitasun» itzuli dut.

Dena dela, hitz hau ez da euskarara ez beste hizkuntzeta zehazki itzultzen, konnotazio sendimental bereziak dituelakoz. Gailego eta portugesez poesia zaharrenaz geroztik usatzen da eta, hilargia agertzeaz gainera, malenkoniarekin erlazionatzen den bihotzaren egoera bat adierazten du. Espainolera «claro de luna» har liteke itzulpentzat eta frantsesera, herri poesian usatu den formulaz, «beau clair de lune». Euskaraz «luar» «hilargia» eta «ao luar» «hilargitan» izan daitezke esakera normalean, baina aipaturiko esanahi berezia adierazteko, zilegia iruditzen zait, kontextoaren arauera, eta abstrakzioa markatzeko «hilargitasuna» eta «hilargitasunean» asmatzea.

Beste aldetik, poema interesgarri bat izkiriatu zuen Fernando Pessoa *Cancioneiro* bilduman, 1914 urte aldean:

*«Ao longe, ao luar,  
No rio una vela,  
Serena a passar,  
Que é que me revela?»*

*Não sei, mas meu ser  
Tornou-se-me estranho,  
E eu sonho sem ver  
Os sonhos que tenho.*

*Que angústia me enlaça?  
Que amor não se explica?  
E a vela que passa  
Na noite que fica.»*

Honela eman daiteke euskaraz:

«Hurrinean, hilargitan,  
Lasai irristatzen da  
Ibaian bela bat.  
Zer adierazten dit?

Ez dakit, baina arrotz  
Bihurtu zait ene burua,  
Eta ikusi gabe amesten ditut  
Ditudan ametsak.

Zer larritasunek harrapatu nau?  
Zer amodio ez da azaltzen?  
Iragaiten ari den bela da  
Geratzen den gauean.

[3] *Ahizpa*. Poesia portuges zaharrean, poesia galaiko-portugesean hobeto esanda, «irmã», ahizpa halegia, «amiga» edo «dompanheira» hitzen sinonimotzat agertzen da sarritan. Hemen ere «adiskide» edo «lagun» esanahia duela dirudi, dontzeilean artean daudelarik.

[4] *Mensagem* liburuko poema batetan, *Horizonte* delakoan, ametsari buruzko ahapaldi argigarri bat agertzen da, poemako azkena:

*«O sonho é ver as formas invisíveis  
Da distancia imprecisa, e, com sensíveis,  
Movimentos da esperança e da vontade,  
Buscar na linha fria do horizonte  
A árvore, a praia, a flor, a ave, a fonte —  
Os beijos merecidos da Verdade.»*

«Ametsa hurrintasun mugaezinaren forma  
Inbisibleak ikustea da, eta, esperantza

Eta borondate mogimendu sentiberakin,  
Ortzemugako lerro hotzean zuhaitza.  
Hondartza, lorea, hegaztia, iturria  
Bilatzea — egiaren mosu mereziak.»

[5] Fernando Pessoaen *Mensagem* liburuko beste lerro bi oroitu nahi ditut, *Padrao* delako poemakoak:

«Que o mar con fim será grego ou romano:  
O mar sem fim è portuguez.»

«Amaiera duen itsasoa greko edo erromatarradateke  
itsaso amaigabea portugesa da.»

[6] *Saudades*, textoan «saudadeak» itzuli dut.

Ideia euskaratzen entseiatuez gero «oroimina», «bakardadea» «herrimina» edo honelako hitzen bat har daiteke, baina hitz hauetan ez da antzematen saudadea den objekturik gabeko sendimendu berezi eta definitu hori, eta hobe iruditu zait bere gisan uztea.

Bestalde, *Quadras ao Gosto Popular* izenekoan artean, kobla argi hau aurkitzen da:



*«Saudades, só portguêses  
Conseguem senti-las bem.  
Porque têm essa palavra  
Para dizer que as tem.»*

*«Saudadeak portugeseak bakarrik  
Senditzen dituzte ondo,  
Badituztela esateko  
Hitz hori dutelako.»*

[7] *Livro do Desassossego* liburuko 428. zatian hau irakurdaiteke:

*«Não toquemos na vida nem com as pontas dos  
dêdos.  
Não amêmos nem com o pensamento.  
Que nenhum beijo de mulher nem mesmo em  
sonho,  
seja uma sensação nossa.»*

*«Ez dezagun bizitza ukitu, ez eta hatz buruaz ere.  
Ez dezagun deus ere maitatu, ez eta pentsamen-  
duaz.  
Andere mosu bat ere ez dadila gu hunkitzera iritsi,*

ez eta ametsetan ere.»

[8] *Zerena*. Portugesezko «sereia» euskarara itzultzeko badaude hitzak, hala «itsaslamia», edo «arrainandere», Esteban Urkiagak edo Jon Mirandek erabilitako «itsasneska» neologismoa, edo hauzo erderatik hartutako «sirena». Ene alde-tik, azken honetarik hurbil, «zerena» izkiriatu dut, behiala Agustin Txaho Atharratzekoak lapurteraz bildu kantu baten oroitzarri:

«Urandian ba umen da  
Kantazale eder bat  
Zerena deitzen den bat  
Itsasoan inganatzen  
Ditu hak pasaierak  
Hala nola ni maitenak.»

[9] *Fada*, ene itzulpenean «fata» utzi dut.

Hitz honentzat, euskaraz «maitagarri», «lamia» eta gisa-koak aurki daitezke euskal hiztegieta. Baina portugesez erreferentzia bereziak dituela iruditu zait.

«Fada» (<fata) hitza erlazioan dago «fado» (<fatum) hitzare-kin. «Fado» fatua edo asturua da, eta kantu moeta triste

baten izena ere bai. «Fadar», berriz, destinoa igartzea da, eta fatek beren liluran edonor harrapatzea.

[10] Bernardo Soares pertsonalitatearen *Livro do Desassossego*, liburuko 444. zatia hau da:

*«O homem não deve poder ver a sua propria cara. Isso é o que há de mais terrível. A Natureza deu-lhe o dom de não o poder vêr, assim como de não poder fitar os seus proprios olhos. Só na agua dos rios e dos lagos elle podia fitar seu rosto. E a postura, mesmo, que tinha que tomar, era symbolica. Tinha de se curvar, de se baixar para cometter a ignominia de se ver. O creador do espelho envenenou a alma humana.»*

«Gizasemeak ez du bere aurpegia begiratu ahalik behar. Horixe da gauzarik izugarriena. Naturak ezin ikustearen ahalmena eman zien, eta halaber bere begiak ezin soegitearena. Erreketako eta lakuetako uretan bakarrik begira zezakeen bere begitarte. Eta horretarako hartu behar zuen jarrera, gainera, sinbolikoa zen. Okertu egin behar zen, makurtu, bere burua ikustearen doilorkeria konplitzeko. Izpiluaren asmatzaileak pozoindu egin zuen giza arima.»

[11] 1931 urtean, *Cancioneiro* liburuan, poematxo hau izkiriatu zuen Fernando Pessoa:

*«Não: não digas nada!  
Supor o que dirá  
A tua boca velada  
E ouvi-lo já.*

*E ouvi-lo melhor  
Do que o dirias.  
O que és não vem â flor  
Das frases e dos dias.*

*Es melhor do que tu.  
Não digas nada: se!  
Graca do corpo nu  
Que invisível se vê.»*

Euskaraz honela izan daiteke:

*«Ez: ez esan ezer!  
Zure aho isilak  
Esango duena susmatzea  
Iadanik entzutea da.*

Esango zenukeena baino  
Hobeto aditzea da,  
Dena ez da azaltzen  
Esaldietan eta egunetan.

Zeu baino hobea zara.  
Ez esan ezer: badakit!  
Gorputz biluziaren liraintasuna,  
Zeina inbisible ikusten bait da.»

[12] *Pessoa*. Hitz hau portugesez pertsona da, abizen hedatu bat ez ezik.

Textoan, ez ote da autorearen keinu bat? Honetara, bada, hau ere irakur dezakezu:

Kantua, jendeak gauzez kantatzen duenean, bat-batean sartu eta gu kontsolatuaz gelako giroa animatzen duen *Pessoa* alai eta bildurrik gabea da.

Beste gauza bat ere esan nahi dut hitz honi buruz, etimologia aldetik: «*pessoa*» edo pertsona hitzak, bidenabar, latinetik heldu dira bai portugesez bai euskarara eta latinez, <persona>, erromatarren teatroan aktoreek beren aurpegietan imintzen zuten maskara edo mozorroa zen.

[13] Iraganari eta orainari buruzko poema eder bat ageri da, 1930 urtean datatua, Ricardo Reis heteronimoaren *Odes* liburuan:

«Se recordo quem fui, outrem me vejo,  
E o passado é presente na lembrança.  
Quem fui é alguém que amo  
Porém sòmente em sonho.  
E a saudade que me aflige a mente  
Não é de mim nem do passado visto,  
Senão de quem habito  
Por tras dos olhos cegos.  
Nada, senã o instante, me conhece.  
Minha mesma lembrança é nada, e sin to  
Que quem sou e quem fui  
São sonhos diferentes.»

«Nor izan nintzen oroitzen badut, beste senditzen naiz  
Eta iragana oraina da oroitzapenean.  
Izan nintzena maite-dut,  
Baina ametsetan bakarrik.  
Eta gogoia arreguratzen didan oroimina  
Ez da enea ez ene iraganekoa,  
Ez bada ene begi itsuen

Atzean bizi naizenarena.

Ez nau ezerk ezagutzen, ez bada uneak,

Neure oroitzapena ere ez da ezer, eta

Naizena eta nintzena

Amets diferenteak direla senditzen dut.»

[14] *Cancioneiro* liburuan, hiru ahapaldiko poematxo hau aurkitzen da:

*«Contemplo o lago mudo*

*que uma brisa estremece.*

*Não sei se penso em tudo*

*Ou se tudo me esquece.*

*O lago nada me diz,*

*Não sin to a brisa mexe-lo.*

*Não sei se sou feliz*

*Nem se desejo sé-lo.*

*Trêmulos vincos risonhos*

*Na água adormecida.*

*Por que fiz eu dos sonhos*

*A minha única vida?»*

Euskarara itzuliko dut:

«Brisarak ikaratzen duen  
Laku mutuari begira nago.  
Ez dakit denaz pentsatzen dudan  
Ala denak ahaztutzen nauen.

Lakuak ez dit deus esaten  
Ez mogitzen duen brisarak.  
Ez dakit zoriontsua naizen  
Ez eta izan nahi dudan,

Ildo dardaratiak daude  
Ur lokartuan irribarrez,  
Zergatik hartu nituen ametsak  
Ene bizitza bakartzat?»

[15] *Livro do Desassossego* delakoaren 450. atala hau da:

*«A mais vil de todas as necessidades — a da confiança, a da confissão. E a necessidade da alma de ser exterior. Confessa, sim; mas confessa o que não sentes. Livra a tua alma, sim, do peso dos seus segredos, dizendo-os; mas ainda*



*bem que o segredo que dizes, nunca o tinbas dito, mente a ti próprio antes de dizeres essa verdade. Eprimir-se é sempre errar. Sé consciente: exprimir seja, nara ti, mentir.»*

«Beharrizan guzietarik ankerrena — konfidentziarena, konfesioarena. Lekoreko izateko arimaren beharrizana da. Konfesa ezazu, bai; baina konfesa ezazu senditzen ez duzuna. Libra ezazu zure arima, bai, sekretuen astuntasunetik, esan; baina diozun sekeretua ez dadila esandakoa izan. Egia hori esan orduko esaiozu gezurra zeure buruari. Adieraztea ekibokatzea da beti. Konzientea izan zaitez: adieraztea, zuretzat, gezur esatea izan bedi.»

[16] *Livro do Desassossego* obran, behin eta berriro agertzen dira gogoetak beste izateari buruz.

Lehenago, Arthur Rimbaud poetak izkiriaturik zuen: «*je est un autre*», hau da, «ni beste bat da». Oraindik, *O Marinheiro* idaztean, sortzeke zeuden Fernando Pessoaaren heteronimoak, baina sortzear. Bernardoren liburuarren 214. atala, esate baterako, hau da:

*«Invejo a todas as pessoas não serem eu. Como de todos impossíveis, esse sempre me pareceu o maior de todos, o que mais se constituiu minha ansia cotidiana, o meu*

*desespero de todas as horas tristes.»*

«Inbidia diet pertsona guziei ni ez direlako. Ezinezko gauza guzietarik hori beti handiena iruditu zaidanez, horixe izan da gehien ene eguneroko antsia, ene ordu triste guzietako etsipena.»

Eta ohartu, berriro, hirugarren hitz horrek ukan deza-keen zentzu bikoitzaz.

[17] Fernando Pessuari, *O Marinheiro* drama estatikoa *Orpheu* aldizkarian irakurri ondoren:

Hamabi minutuz irakurri ondoren  
Zure *O Marinheiro* drama,  
Zeinean azkar eta zuhurrena ere  
Logale eta gordin geratzen den,  
Eta zentzuaz ez eta usainik hartu ere,  
Gaubeilarietarik batek  
Hau dio bere xarma zurbilez:

*Eternala eta ederra, ametsa besterik ez dago  
Zergatik gaude oraindik ere solasean?*

Hain zuzen ere  
Horixe galdetu nahi nieke andereoi.»

*Alvaro de Campos*

[18] Bizitzari buruzko solas honetan Fernando Pessoren poema ingeles bat oroitu nahi dut, bere *Inscriptions* sailekoa; saileko lehena:

«We pass and dream. Earth smiles. Virtue is rare.  
Age, duty, gods weigh on our conscious bliss.  
Hope for the best an for the worst prepare.  
That sum of purposed wisdom speaks in this.»

Euskarara itzultzen entseiatu naiz:

«Iragan eta amets egiten dugu. Lurrak irribarre. Bir-  
tute guti dago.  
Adina, eginbidea, jainkoak astunegiak dira gure  
atsegin konszienterako.  
Espero ezazu hoberena eta gerta zaitez txarreneta-  
rako.  
Hauxe esaten digu jakintzarik zentzunezkoenak.»

[19] Bera hil ondoren, Fernando Pessoren kaxoi betee-  
tan aurkituriko paper ugarien artean *O Marinheiro* obra  
honen erreseina labur bat dago, hau ere ingelesez:

«O Marinheiro. Beginning very simply the drama rises gradually, to a terrible pitch of terror and doubt, which grow and grow, till they absorb in themselves the three speakers' souls and the atmosphere of the room and the very power the day has to begin.

The end of this piece contains the subtlest intellectual terror ever seen. A leaden pall falls over on when they have no which to speak or any reason for speaking.»

Hau da:

«*O Marinheiro*. Era arras sinplean hasten da drama, apurka apurka bildur eta zalantza maila izugarri batetara altzatzen da, eta gehituz doa tentsio hau hiru gaubeilarien gogoan, gela barruko giroa eta egunak sortzeko duen indarra ere xurgatzera iristeraino.

Obra honen amaierak sekulako bildur intelektualik zuhurrena dakar. Gaubeilariak zer esanik ez mintzatzeko arrazoiarik ez dutenean, oihal astun batek estaltzen ditu.»

[20] Lehen borradorean, translazioa entseiatzen ari nintzela, esaldi hau honela itzuli nuen:

«— Zein abots da zurekin mintzo den hori?»

[21] Anbiguitateari amore emanaz gero, goikoari loturik, posible da beste itzulpen hau ere:

«Bildurraren abots zorrotz eta dardartiarekin mintzatu naiz agian...»

[22] *Sono*. Portugesari dagokion ohar bat, bereizketa lexiko bat, «sonho» hainbeste aldiz agertu ondoren orain «sono» agertzen bait da orain.

Ametsa eta logalea, gaztelaniazko «sueño» hitzean ez bezala, berezi egiten dira portugesez. «Sonho» (<somnus) ametsa da, eta «sono» (<somnium) logalea, edo loa.

[23] *Akidura*. Sarritan agertzen da Fernando Pessoren obran akiduraren gaia.

Zer da akidura? Bada, gorputzean logalea, esperantzarik eza, pentsatu gabe egoteko gogoia, desilusio piloa, amildegian iragaiten den bakazioa, ezpainetaraino iristen ez den garrasia. Ez, hau ez da akidura —esango du Alvaro de Campos heteronimoak— baina gauzak entzuteaz, gauzak ikusteaz, akiturik nago.

*Poesias Ineditas* liburuan, 1921 urteko poema bat hone-lahasten da:

*«Cansa ser, sentir dói, pensar destruí.  
Alheia a nós, em nós e fora,  
Rui a hora, e tudo nela rui.  
Inutilmente a alma o chora...»*

«Izatea akigarria da, senditzea mingarria, pentsa-  
tzeak hautsi egiten gaitu.

Gure baitan eta lekorean, ordua erori  
Eta bertan erortzen da guzia.  
Alferrik egiten du negar arimak...»

[24] Inoiz entzundako esaldi bat oroitu dut une horretan,  
Ingmar Bergman zinegilearen filmeren batetan agian, baina  
ez dakit zihur:

«Nik ikusi dut Jainkoa, miarma bat da.»

[25] Lehen borradorean beste modu batez itzuli nuen, ez  
erabat erraturik agian:

«Nor da ene abotsarekin mintzo dena?...»

[26] Berriro agertzen da «pessoa» hitza. Irakur ezazu  
beste honetara ere, nahi baduzu:

«Nor da gela honetan senditzera goazen guzietan besoa luzatu eta eteten digun Pessoa?»

Begiratu, bestalde. 12. eta 16. oharrak.

[27] Obra amaitu eta gurdi kexati eta xirrinkaria aditzean izkiriaturiko poema:

Malkorik isurtzeko lotsatu dira ene begiak,  
Den bizona bakarra bizi dutelako. Entzun,  
Astiro doa denbora, idi gorrien gurdi hori.  
Begira erlojuetako orratzak uneka herdoiltzen.  
Zenbat gauza utzi dudan estarta bazterretan  
Edo laku urdinen hondoan, bizona bakarra dudalako,  
Eta zenbat aldiz galdu naizen behelainotan  
Basoilar izateko ametsetan dabiltzan kurloiekin.  
Orain, ene desirak ez dira habia abandonatuak baino  
Ene bihotzean. Eguzkia gupil ahul bat da.  
Ez dezadan gehiago entzun, begiratu; pentsatu,  
Bizona hau bakarra delako, gal ez dadin, ibili ez  
Eta senditu ere ez, harriak bezala izan nahi dut,  
Mendea eta segundua gurutzatzen diren lekua,  
Lekua besterik ez izan, hurrin deritzan aberrian.